

BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1. Sarrera eta Justifikazioa

Irungo Udalak pertsonen garapen osorako eta jarduera ekonomikorako hiri erakargarri bat eraikitzeko duen asmoan (garapen hori gizarte iraunkortasunean, ekonomiaren iraunkortasunean -berrikuntza zein lehiakortasuna- eta ingurumeneko iraunkortasunean oinarrituta) ekoizteko eta kontsumitzeko eredu iraunkorrago batera igarotzeko beharra aitortzen du.

Herritarrok, oro har, kontsumoaz dugun kontzeptuan aldaketa sozial bat egin dezagun eskatzen dute garai honetan izan ditugun aldaketek. Ingurumenak jasandako kalteak, natur bitartekoez egiten den kontsumo handia eta herrialde aberatsetako eta herrialde pobreetako biztanleen arteko desberdintasun egoera dira kontsumitzeko garaian arduratsuak izatera bultzatu behar gaituzten arrazoiak.

Erosten dugun produktuaren bizi-zikloaren ikuspegitik ingurumen-inpaktua gogoan hartzea, prozesua bere osotasunean kontuan hartuz, alegia garraioa, banaketa, kontsumoa eta bizitzaren amaieran uzten dituen hondakinak eta kontsumo arduratsu hori hurbilen dugun gizarte errealitatean eta errealitate ekonomikoan aplikatzea.

Errealitate berri horretarako iragaitea gizartearen ardura dela ulertzen dugu, eta gizarte eragile guztien artean partekatu behar dela. Eta, agintari publiko garen aldetik, badakigu era erabakigarrian lagundu ahal dugula garapen iraunkorrean Bidezko Merkataritza bultzatuz tokiko administrazioan, sektore pribatuan, hezkuntza komunitatean eta gure hiriko gizarte ehunean.

Asmo horretatik, prest gaude Bidezko Merkataritzaren alde dagoen hiri bat lortzeko.

http://www.ciudadesjustas.org/assets/municipios/docs/Compromiso_irun.pdf

2. Gure hirian aurrekariak

Irun hiriak urteetan zehar garapen iraunkorrarekin, elkartasunarekin eta, oro har, nazioarteko lankidetzarekin duen konpromisoan sakontzen jarraitu nahi du elkartasunezko hainbat ekintzaren bidez:

- Garapenerako lankidetzaren programei diru-laguntzak emanez, Sentsibilizazio Ekintzak eta Garapenerako Hezkuntza proiektuak bultzatuz, herrialde pobreen

egoeraren eta pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko harremanak duen garrantziaren berri emateko, mundu justuagoa lortzeko.

- Europako Hiri Iraunkorren Karta (Aalborg-eko Karta) sinatu du eta aurretik Irunen Tokiko Agenda 21 delakoaren prozesua egin da, hiriaren garapen soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa justua eta iraunkorra izan dadin.
- Alkateen Hitzarmena sinatu du eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana garatu du; plan honek garapen iraunkorrari dagokionez, bitartekoen kontsumo arduratsuekin lotutako ekintzak sartzen dituela.
- Erosketa publikoa etikoa izateko konpromisoa (http://www.ciudadesjustas.org/assets/municipios/docs/Compromiso_irun.pdf) dokumentuan eskuratu ahal da)
- Sozialki arduratsua den lurralde bat eraikitzeko konpromisoa POCTEFA 2007-2013 europar programaren bitartez. Programa honek, besteak beste, Merkataritza arduratsuari buruzko proiektua bat garatzen du.

3. Bidezko merkataritza

Gero eta globalizatuagoa den eta konektatuta dagoen gizarte batean bizi gara; hala ere, ez da herrialde aberatsenen eta pobretuenen arteko tartea murrizteko gauza izan.

Beraz, beharrezkoa da alternatibak planteatzea egungo eredu sozioekonomikoari, gizakia erabakien erdian kokatzen dutenak eta garapen iraunkorra bermatzen dutenak.

Bidezko Merkataritza nazioarteko merkataritzaren alternatiba bat da. Elkarrizketan, gardentasunean eta begirunean oinarritutako eredu bat proposatzen du, laguntzarik handiena behar duten Hegoaldeko komunitateetan ekitate eta jabekuntza handiagoa bilatzen duena.

Defendatzen dituen oinarrien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Desabantaila ekonomikoan edo ohiko merkataritza sistemak baztertuta dauden ekoizleentzako aukerak sortzea eta gaitasunak garatzea.
- Gardentasuna eta kontuak ematea.

Bidezko Merkataritzak administrazio eta merkataritza harreman gardenak eskatzen ditu era justuan eta merkataritza kideekiko begirunez.

Ekoizpenaren gastuak estali ez ezik, sozialki bidezkoa den eta ingurumenaren ikuspegitik arduratsua den ekoizpena egitea ahalbidetzen du bidezko prezioa ordaintzeak.

- Genero ekitatearen arabera, emakumeei ordaintzen zaie beren ekarpenagatik ekoizpen prozesuan eta ahaldunduta daude emakume horiek beren erakundeetan.
- Lan baldintzak: ingurumen seguru eta osasungarri batean, langileek eskubideak errespetatuz eta haurren esplotazioa debekatuz.
- Ingurumenarekiko begirunea eta inguruarekiko praktika egokiak bultzatzea.
- Konfiantzan eta elkarren errespetuan oinarritutako Merkataritza Harremanak.

Bidezko Merkataritzari buruzko Europar Legebiltzarraren Ebazpenean [2005/2245 (INI)] oinarrituta, sinetsita gaude bidezko merkataritzak laguntzen diola garapen iraunkorrari "pobrezia murrizteko eta garapen iraunkorrerako tresna garrantzitsua" den aldetik, eta "europar agintari publikoak bidezko merkataritzako iritziak sartzeko egiten dituzten lizitazio publikoetan eta erosketan politiketan" bultzatzeko proposatzen den esparruaren arabera.

Bestalde, gure ustez bidezko merkataritzak koherentzia hartzen du elikadura-jabekuntzaren paradigmatik ulertzen bada; izan ere, paradigma hori hegoaldeko lurraldeetan zein gure errealitate hurbilenean aplikatu ahal da.

4. Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien programaren deskribapena

Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien programa nazioartekoa da eta 2001ean sortu zen Ingalaterran.

Udalerria eratzen duten eragileen arteko lan koordinatua proposatzen du (udala, hurbileko komertzioa, ostalaritza eta jatetxeak, hezkuntza komunitatea, komunikabidea, sektore pribatua, elkarte-ehuna eta herritarrak oro har) bidezko merkataritza alternatiba erreal gisa bultzatzeko, gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzeko.

Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien programak lortu beharreko adierazle multzo bat proposatzen du (biztanle kopuruaren arabera kalkulatua); horrela, adierazle horiek lortzen direnean, "Bidezko merkataritzaren aldeko hiria" estatusa lortuko da.

Landu beharreko adierazleak hauek dira:

- Bidezko merkataritzaren aldeko ebazpen bat bozkatu eta, ahal den neurrian, bidezko merkataritzako produktuak sartzeko udalako kontratazioetan eta kontsumoan.
- Txikikazko sektorean, kafetegietan eta jatetxeetan bidezko merkataritzako produktuak eskaintzea.

- Settore pribatuarekiko eta erakundeekiko konpromisoa.
- Programaren eta bidezko merkataritzaren komunikazioa eta sentsibilizazioa.
- Bidezko merkataritzari buruzko lantalde bat eratzea.

Ekimena sortu zenetik, mota desberdinetako 1.000 udalerrik “Bidezko merkataritzaren aldeko hiria” estatusa lortu dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, programa Emaus Gizarte Fundazioak bultzatzen du. Erakunde hori programa horrekin hitzartutako udalerrri sare bat eratzen ari da eta, era partekatuan, Bidezko merkataritzaren aldeko hirien programa tokiko ekoizpena bultzatzearekin lotzen duen seigarren irizpidea eraikitzen ari da; modu horretan programak koherentzia handiagoa edukiko du arestian azaldutako bidezko merkataritzaren ikuspegiari dagokionez.

5. Konpromisoak

Aurretik adierazitako arrazoiengatik guztiengatik, Irungo Udalak “bidezko merkataritzaren aldeko hirien” programaren aldeko babesa adierazten du, programa hori bidezko merkataritza gure udalerrian sartzeko tresna eraginkortzat hartzen duelako, eta konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Epe motzeko, ertaineko eta luzeko helburuak zehazten laguntzea Irún Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiri bilakatzeko, programa bultzatzeko giltzarri diren aktore guztiek eratzen duten lantaldean parte hartuz.
2. Programak interesgarri jotzen dituen taldeetan aktiboki bultzatzea bidezko merkataritza.
3. Erosketa publikoa etikoa eta bidezko merkataritza babesteko politika garatzeko lan egitea Ipar eta Hego ikuspegitik, garapen hori gure politikan eta ditugun erosketa zein kontratazio praktiketan sartzeko konpromisoa hartuz, aplikagarria den guztietan.
4. Herritarrei zuzendutako hedapen eta informazio ekintzak egin daitezen babestea Irungo Udalaren jarduketaren berri emateko eta bidezko merkataritzako produktuen kontsumoa bultzatzeko.